

IKASTETXEETAN MIGRAZIO-PROZESUAK
ETA NORTASUN ANIZTUNAK LANTZEKO
GIDA DIDAKTIKOA

MUNDUA MUGIMENDUAN

**ESKUBIDE-
KONTUA**



Cofinanciado por la UE

Munduko Medikuak, 2022

Idea, idazketa eta edukien koordinazioa:

Momadou Diagne Lo, Munduko Medikuak erakundeko egoitza nagusia (Madril), eta honako egoitza autonomiko hauetako talde teknikoarekin elkarlanean: Beatriz Rodríguez (Andaluzia), Rubén Pérez-Langa (Asturias), Ana Tobarra (Katalunia), Elías Amín (Aragoi), Iriome Rodríguez (Kanaria Handia), Blanca Fraile (Nafarroa), Cristina Hernández (Tenerife), Cintia Martín eta Cristina Cámara (Gaztela-Mantxa), Ana Hernández (Gaztela eta Leon), Sol Martínez (Madril), Verónica García (Galizia), Mamadou Moustapha Ngom (Euskadi), Laura Sánchez (Extremadura).

Gida egin ahal izan dugu honako erreferente migratzaile eta/edo arrazializatu hauen laguntzari esker:

Yeison García, Safi Al Aaddam, Xirou Xiao, Thimbo Samb.

Portada, marrazkiak eta edukia: Ana Cebrían

Diseinua eta maketazioa: Gil Gijón

Gida hau Munduko Medikuak erakundeak egin du Europar Batasunak eta Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioak finantzaturako “Un Mundo en Movimiento, Cuestión de Derechos” proiektuaren esparruan.


Argitalpenaren edukia Munduko Medikuak erakundearen erantzukizuna da bakarrik.

Eskerrik asko gida honen eskubide erreserbatuak errespetatzeagatik, eta bakarrik eta eskusiboki Creative Commons BY-NC-ND 4.0 lizentziaren menpean zabaltzeagatik.

@2022, Munduko Medikuak

MUNDUA MUGIMENDUAN

**ESKUBIDE-
KONTUA**



E
DU
KI
A



05

Aurkezpena
Nola erabili gida?

06

Osasuna eta migrazioak
Osasunaren mugatzaile sozialak
Gizakiaren historia: mundua mugimenduan

07

Zer da hezkuntza eraldatzailea?

09

Ariketa didaktikoak
Migrazio-prozesua

20

Nortasun aniztunak ikasgelan

31


Amaiera: Askotariko eta bereizkeriarik gabeko ikasgelen alde

32

Glosarioa

35

Bibliografia



HAPPY

TRAVEL

TRAVEL

A

Aurkezpena:

Gida hau elkarlanean egin du **Munduko Medikuek erakundearen talde teknikoak**, hamabi autonomia-erkidegotan eta hamasei probintzian dagoena, non proiektua garatu egiten ari garen. Eskuetan daukazuen edukia Munduko Medikuek erakundeko talde teknikoak eta ikasleekin aritzen garen ikastetxeetako irakasleek aurkitu dituzten beharren emaitza da.

Beste alde batetik, Mundua Mugimenduan proiektuaren ibilbide luzea jasotzen du, hezkuntza antolatua zein antolatu gabeko hezkuntzaren arloetan migrazio-prozesuei eta osasunerako eskubideei buruz sentsibilizatzeko eskubideetan ardatz egiten dena.

Urteak igaro ahala, proiektua espainiako

lurraldean nagusituz joan diren egoera berrietara moldatu egin da.

Horrez gain, migratzaileen giza eskubideen urratzearen aurrean kritikoak diren herritarrek sustatu nahi ditu, batez ere osasunerako eskubideari dagokionez.

Gidaren helburua irakasleei zein talde teknikoari ikasgelan lekualdatutako eta aniztasunen gaiei heltzeko tresna didaktikoak ematea da, bereizkeriarik gabeko bizikidetzak baketsua eta, jatorri etniko-soziala, erlijioa edo genero-nortasuna alde batera utzita, izaki bakoitzaren gaitasunei buruzko elkarren arteko ikaskuntza sustatzeko.

Nola erabili gida?

Gidak bi zati ditu. Lehenengo zatian osasunaren mugatzaile sozialei eta gure esku-hartzeetan eztabaidatzen dugun eraldaketa sozialerako hezkuntzaren estrategiari buruzko sarrerako atala dugu.

Bigarren zatian **Ana Cebrián** irudigile eta hezkuntza artistikoko irakasleak diseinatu-tako lau ariketa didaktiko ditugu.

Ariketak hezkuntzaren profesionaletara eta Munduko Medikuek erakundeko talde tekniko-kora zuzenduta daude. Horietan, bi atal tematiko bereiziko ditugu: migrazio-prozesua, **MIGRATU eta IZAN eta GEHITU** ariketa-

rekin, eta nortasun aniztunen atalean **PARTE IZAN eta LOTU** ariketak aurkituko ditugu.

Ariketa bakoitzak 4 orrialde ditu, eta bertan jarraibideak eta gidaren glosarioan sakonduko diren oinarriko kontzeptuak daramatzaten etiketak aurkituko ditugu. Irakasleek ariketen edukiak sormenez eta inspirazioz alda ditzakete dagozkion testuinguruetan.

Osasuna eta migrazioak

Munduko Medikuak nazioarteko elkar-
tea da, burujabea eta borondatezko lana
egiten duena, eta arreta soziosanita-
rioaren eta lekukotasun eta jarduera poli-
tiko eta sozialaren bitartez **osasunerako**
eskubidea pertsona guztien eskura ego-

tearen alde lan egiten du, batez ere
pobrezian, genero-desparekotasunean
eta gizarte-bazterkerian bizi diren edo
krisialdi humanitarioen biktima diren
pertsonek eskura egotearen alde.

Osasunaren mugatzaile sozialak

Osasunaren Mundu Erakundeak honela
definitu egiten ditu mugatzaile sozialak,
hain zuzen ere: "**pertsonak jaio, hazi,**
lan egin, bizi eta zahartu egiten diren
egoerak, eguneroko bizi-baldintzetan
eragina duten indarren eta sistemen
multzo zabalagoa barne". Osasuna oso-
tasunez gozatzea alderdi sozioekonomi-
koen eta arau politiko eta sozialen
menpean egongo da. Osasuna eskurat-

ko aukerak oso desberdinak izan daitezke
populazioaren azpitalde zehatzetarako
eta aldeak eragin ditzakete osasunaren
arloan emaitzetan. Izan ere, zenbait kate-
goria sozialek, besteak beste arraza,
generoa edo maila soziala, osasuna esku-
ratzeko aukera mugatzen dute, batez ere
pribilegio sozioekonomikoak ez dituzten
populazioetan.

Gizakiaren historia: mundua mugimenduan

Migrazioak eta erbesteak kapitulu asko
bete dituzte gizakiaren historian zehar.
Gaur egun, globalizazioak xehetasun
berriak gehitzen dizkie bi kontzeptu
horiei, eta ezagutu behar ditugu bizitzen
ari garen mundua nola den jakiteko. Gaur
egungo migrazio-mugimenduak **popula-**

zioaren banaketa desorekatuak, onda-
sunen bidegabeko banaketak eta
eskubideen esleipen desberdinak irau-
narazten duten asimetriaren inguruan
antolatu egiten dira nagusiki, eta horiek
hainbat motatako bizitzak dakartzate
mundu globalizatuan. Alderdi horiek

pobretutako herrialdeetatik datozen pertsonak lekualdatu behar izatea eragiten dute, bizitza hobeagoaren bila baitaude edo gatazketatik ihes egiten ari baitira. Gaur egun, legezko estatutuak edo jaioterriak (munduko iparraldeko herrialdeetan) zirkulazio askearen pribilegioa ematen dute, bizitzak migrazio-prozesuan arriskuan jarri gabe. Pobretutako herrialdeetatik (munduko hegoaldeko herrialdeetatik)

datozen pertsona askok, ordea, muga fisiko eta/edo administratiboan ondoriozko migratzeko ezintasunari egin behar diote aurre. Dena den, kontuan izan behar dugu migrazioak ez direla bakarrik desparekotasun ekonomikoagatik gertatzen; **gatazka armatuek eta jazarpen politikoek** edo edozein motatakoek ere eragiten dituzte (Munduko Medikuek erakundearen migrazio-politikak, 5. orr).

Zer da hezkuntza eraldatzailea?

Eraldaketa sozialerako hezkuntzak biztanleria globala hezi nahi du, kontzientziazio kritikoko prozesu bat sortuz aldaketa sozialarekin konpromisoa hartzen duen gizarte bat eraikitzeko eta **gizarte bidezkoago, zuzenago eta solidarioago** sortzeko. Eraldaketa sozialerako hezkuntzaren bidez, tokiko ingurunean aktibo den herritarren eredia eraiki nahi dugu; gizarte globalaren alde egiten duten eta, aldi berean, edozein motatako bazterkeriaren, desparekotasunaren eta bidegabekeriaren (arrazakeria, xenofobia, LGTBQ+ pertsonen kontrako fobia) aurkako borrokan konprometituta dauden herritarrek.

Horretarako, giza eskubideen, generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegi integratuak txertatu behar ditugu zeharka.

Aldaketa soziala lortzeko ezinbestekoa da txikitatik pentsamendu kritikoa sustatzea gure tokiko ingurunean, ingurune fisikoan

eta ingurune birtualean nagusitzen diren **aurreiritziak, gezurrak eta estereotipoak hausteko**. Hainbat jakintza eta aktore eztabaidatzen jartzen dituzten hegemoniaren aurkako kontraerak beharrezkoak dira. Ildo beretik, hezkuntzak aldaketarako tresna izan behar du subjektu kolektiboak eta banakako eta komunitateko subjektuak lortu nahi diren eraldaketa sozialen protagonista bihurtzeko.

Aipatutako subjektuak osatzeko, beharrezkoa da pertsona eta gizatalde bakoitzak desparekotasuneko egoeran duen eginkizunaz eta eginkizun horrek eragiten duenez kritikoki jabetzea (H. Abian: 2021). Garrantzitsua da guztiok gure eskubideak eta egintza zehatzekin gure ingurunean eragina izateko gaitasunak ezagutzea **“gaixotasun guztiei aurre egiteko, injustiziar berari ere”**, Munduko Medikuek erakundearen goiburua dioenez.



ARI
KE
TA

**ARIKETA
DIDAKTIKOAK**



Migrazio-prozesua

Migrazioa populazioak leku batetik beste batera lekualdatzea dakarren prozesua da. Herri guztiek migratu dute eta migratzen jarraituko dute, hainbat arrazoiengatik: **pertsonalak, ekonomikoak, politikoak eta abar.**

Krisialdiaren azken urteetan, unibertsitateko prestakuntza zuten Espainiako gazte asko garatuago zeuden beste herrialde batzuetara joan behar izan ziren bizitza hobe baten bila.

Immigrazioari dagokionez, azken hamarkadetan etorkinen kopuruak gora egin du Espainian, batez ere gertu dauden herrialdeetatik (Europar Batasuna, Afrikako iparraldea), Abya Yala kolonizazioak markatutako harreman historikoa duten herrialdeetatik (Latinoamerika) eta beste herrialde batzuetatik etorri direnak, hainbat arrazoiaren ondorioz (ekonomikoak, politikoak eta abar).

Hala ere, arrazakeria eta xenofobia direnean, **biktimak Europatik kanpoko eta zuriak ez diren pertsonak izaten dira gehienbat** (Consejo para la Eliminación de la Discriminación Racial o Étnica: 2020).

Migrazioa oso prozesu luze eta konplexua da eta etapa batzuk ditu berekin: bidaia prestatzea, bidaia egitea, iristea, bizitzen jartzea.

Migrazio-prozesuak bidaiari ekin dioten pertsoneri eragiten die zuzenean, baita zuzenean edo zeharka lotuta dauden pertsoneri, hau da, migratzaileen ondorengoei ere. Prozesua norabide anitzekoa eta maila anitzekoa da; helmugako gizar-teak oso errealitate aniztun bihurtzen ditu baina, aldi berean, hainbat motatako bereizkeriako egoerari aurre egin behar die.

Migrazio-prozesuak dolua dakar, hau da, asimilazioko eta migrazio-proiektura lotutako galeren (hizkuntzak, senideak eta lagunak, erreferentzia kulturalak, estatus soziala eta abar) konfrontazioko prozesua dakar (Aragoiko Gida, 26. orr).

Ikasgelek errealitate aniztunari erantzun behar diote, kulturarteko elkarrizketako, bizikidetzako baketsuko, begiruneko eta antzemateko guneak sustatuz eta migrazio-prozesuaren elkarren arteko aberasketari probetxua ateraz.

Datozen orrialdeetan MIGRATU eta IZAN eta GEHITU ariketa didaktikoak proposatu egiten dira migrazio-prozesua ikasgeletan lantzeko.

MIGRATU

1. ARIKETA: PUZLE-POEMA LIBURU BAT SORTU

ZERGATIK MIGRATZEN DUGUN GALDET-
ZEA LURREKO HERRI GUZTIAK NOLA
SORTU DIREN GALDETZEA DA. ASKO
DIRA PERTSONAK MIGRATZERA BULT-
ZATZEN DITUZTEN ARRAZOIAK: BAT-
ZUETAN, GERRA, INDARKERIA, PO-
BREZIA; BESTE BATZUETAN, ITXAROPE-
NA, ETORKIZUN HOBEA EDUKITZEKO
NAHIA EDO PERTSONA MAITEEKIN
BERRIZ TOPATZEKO IRRIKA. EZ DA
INOIZ ERRAZA EZAGUTZEN DENA
ATZEAN UZTEA; BASAMORTUAK, ZERUAK
ETA ITSASOAK ZEHARKATU BEHAR
IZATEA; ZIURGABETASUNARI EDO BABES-
GABETASUNARI, GORROTOARI, ITZULERA-
RI ETA INOIZ EZ ITZULTZEARI BELDU-
RRA IZATEA. EZJAKINTASUNAK ETA
"FAKE NEWS"-EK EGOERA OKERRAGOTU
EGITEN DUTE GAINERA.

MIGRAZIO-PROZESUA

#MIGRAZIO-DOLUA
#MUNDUKO HEGOALDEA
#MUNDUKO
IPARRALDEA
#ANTIARRAZAKERIA
#FAKE NEWS-AK
#MIGRAZIO-PROZESUA



HELBURUAK:

- JENDEAK MIGRATZEKO ARRAZOIETAN SAKONDU.
- MIGRATZEN DUEN ETA EZ BAKARRIK HARTZEN DUEN HERRIALDE GISA AITORTU GEURE BURUA.
- GORROTOAN OINARRITUTAKO ARRAZOIBIDE MEDIATIKOAREN ARRISKUAZ JABETU.
- GURE ARRAZOIBIDE POETIKOA AZTERTU HIZKUNTZA ERALDAKETA SOZIALA ERAGITEKO TRESNA GISA KONTUAN HARTUZ.

EGINTZAK:

GUZTIRA: 45 MIN

1. URRATSA

YEISON GARCÍA LÓPEZ EGILEAREN "DERECHO DE ADMISIÓN" POEMA-BILDUMA IRAKURRI



POEMA IRAKURRIKO DUGU, GEHIEN HUNKITU,
ZIRRARA EGIN EDO ERAGIN GAITUZTEN
HITZAK ATERAKO DITUGU ETA HURRENGO
URRATSERAKO GORDEKO DITUGU.

15 MIN ↑



MIGRATU

1. ARIKETA: PUZLE-POEMA LIBURU BAT SORTU

YEISON GARCÍA LÓPEZ-EK "DERECHO DE ADMISIÓN" (2021)
EDO "VOCES DEL IMPULSO" (2017)
LIBURVETAN IDATZITAKO OLERKI
BATZUK IRAKURTzea ETA
HORIETAZ HITZ EGITEA
PROPOSATUKO DUGU.

HITZ
BATZUK
AUKERATU
DITUGU:

MUNDUAK EGITEN DITUT

NIRE AZAL BELTZA

BEGIRADA
LAGUNA

NEUREGANATZEN
DUT

BIZITZA MARRAZTEN DUT

HAURTZAROA

ITZULERA

20 min

2.URRATSA



MIGRAZIOARI BURUZKO HAINBAT BERRIAREN
FOTOKOPIAK ERABILIZ, ESTEREOTIPOEI
ETA IKUSMOLDE OKERREI BURUZKO EZTABAIDA
IZANGO DUGU.

☐ JATORRIZKO TESTUAREN GAINEAN HITZ
BATZUK MARRATUKO DITUGU BERRIAREN
EDO "FAKE" BERRIAREN) TESTUA
ALDATZEKO ETA FALTA DIREN HITZAK
BESTE BATZUEKIN ORDEZKATUKO DITUGU.

2

MIGRATU

1. ARIKETA: PUZLE-POEMA LIBURU BAT SORTU

PUZLE BAT EGINGO DUGU:
TARTEETAN YEISON-EN
OLERKIKO HITZAK JAR
DITZAKEGU EDO ASMATZEN
DITUGUN BESTE BATZUK
JAR DITZAKEGU

IMMIGRANTEEN
ETORRERA MASIBOA
CEUTARA. ARMADA
HONDARTZAN DAGO.
BERTAN HAINBAT
TANKE ETA MILITAR
ASKO BESTE
ALDEAN DAUDEN
EHUNKA LAGUN IN-
GURUAN HELTZEN
SAIHESTEN SAIAT-
ZEN ARI DIRA...

~~BEGIRADA LAGUNGA-~~
~~RRIAREN ETORRERA~~
~~IRRIKATUA CEUTARA.~~
~~BIZITZAREN MARRAZ-~~
~~KIA HONDARTZAN~~
DAGO. BERTAN HAIN-
BAT ~~MUNDU~~ ETA ~~PERT-~~
~~SONA ASKO BESARKAT-~~
~~ZEN DIREN~~ EHUNKA
LAGUN INGURUAN
~~ZAINTZEN~~ SAIATZEN
ARI DIRA...

↓ ARIKETA HAU 4 / 5 PERTSONAKO TALDEETAN
ANTOLA DAITEKE.

GURE OLERKIRAKO IZENBURU BAT BILA-
TUKO DUGU ETA, BERRITIK BALIO DIREN
HITZEKIN ETA GUK GEHITU DITUGUN
HITZ BERRIEKIN BATERA, AMAIERAKO
KONPOSIZIOA SORTUKO DUGU. ZER KONTA-
TU NAHI DUGU? ZEIN ESTEREOTIPO JARRI
NAHI DITUGU ZALANTZAN? →

↪ BESTE EGUNKARI ETA ALDIZKARI
BATZUETAKO LETRAK ERABIL DITZAKEGU FALTA
DIRENAK GEHITZEKO.

3

MIGRATU

1. ARIKETA: PUZLE-POEMA
LIBURU BAT SORTU

GURE ERREZITALDIRAKO,
LANAK JATORRIZKO
TESTUAREKIN
BATERA
ERAKUTSIKO DITUGU.

3. URRATSA

GURE OLERKI-ERREZITALDIA 10 min
ANTOLATUKO DUGU.

OLERKIAK IRAKURRIKO DITUGU TALDEKA ETA
ZENTZUA EMANGO DIEGU. ZER ESAN NAHI GENUEN?
MIGRAZIOARI LOTUTAKO ESTEREOTIPO BATZUK
HAUSTEA LORTU DUGU? ZER-NOLAKO GARRANTZI
SOZIALA DUTE "FAKE NEWS"-ETAN ZABALTZEN
DIREN GEZURRAK, ZER USTE DUGU?

(SAKONDU DEZAKEGU
"MEME" ANTIRRAZISTAK SORTUZ).

ERREFERENTEAK:

HONAKO ARTISTA HAVEN LANA KONTSULTA
DEZAKEGU TAILERRA EGIN BAINO LEHEN EDO
EGIN ONDOREN, EZTABAIDA ABERASTEKO:

+ JAKITEKO, KONTSULTATU GIDA:

M^a TERESA HINCAPIÉ
ROMUALD HAZOUMÉ
BARTHÉLÉMY TOGUO
ESTEFANÍA SANTIAGO
MONA HATOUM
WARSAN SHIRE
YEISON GARCÍA LÓPEZ
FRANCISCA BENÍTEZ

IRUDIAK ETA
EDUKIA:

ANA
CE.B
RIAN

HONENTZAT:



4

FITXA DIDAKTIKORAKO WEBGRAFIA:

Yeison García López:

[@yeison.f.garcia.lopez](https://www.instagram.com/yeison.f.garcia.lopez)

<https://elpais.com/babelia/2021-06-25/una-nueva-voz-preciosa-valiente-bella-y-politica.html?ssm=whatsapp>

Estefanía Santiago:

<http://estefaniasantiago.com/tomar-la-forma-de-un-pajaro-es-una-forma-de-querencia>

Warsan Shire:

<https://afrofeminas.com/2016/04/01/poemas-de-warsan-shire/>

Romuald Hazoumé:

<https://universes.art/es/magazine/articles/2010/romuald-hazoume/img>

Barthélémy Toguo:

<https://www.unesco.org/biennaleluanda/2021/en/barthelemy-toguo-unesco-artist-peace>

Mona Hatoum:

https://caixaforum.org/es/digital/p/mobile-home-de-mona-hatoum-por-diana-guijarro_a12389175

Francisca Benítez:

<https://franciscabenitez.org/>

IZAN ETA GEHITU

2. ARIKETA: NORTASUN-MAPA BAT SORTU

JAIOTZETIK HERIOTZARAINO, GUZTIOK BIDAIA BAT EGITEN DUGU BIZITZAN ZEHAR. BATZUETAN ZORJONTSUA DA ETA, BESTE BATZUETAN, TRISTEA; BATZUETAN BAKARRIK BIDAIATZEN DUGU ETA BESTE BATZUETAN NORBAITEKIN GOAZ. BIDEAN GURE NORTASUNA ERAIKIZ JOATEN DIREN GAUZAK HARTZEN DITUGU: AITONAREN IRRIBARREA, ETXEKO ERREZETA, ENTZUN DUGUN MUSIKA, LANBIDE BAT... GAUZA, EGOERA, SENTIMENDU ETA EZAUGARRI HORIEK GURE NORTASUNA OSATZEN DUTE.

MIGRAZIO-PROZESUA

#NORTASUNA
#ARRAZIALIZAZIOA
#BIZITZAKOISTORJOAK
#PRIBILEGIOA / ZAPALKUNTZA
#INTERSEKZIONALITATEA



HELBURUAK:

- GURE NORTASUNAREN MAPA SORTU GERUZAZ GERUZA.
- PRIBILEGIO / ZAPALKUNTZA KONTUVAZ JABETU.
- GURE BIZITZAKO ISTORIOAK ESATEAN AHALDUNDU.

EGINTZAK: GUZTIRA: 45 MIN

1. URRATSA

ARIKETA AURKEZTU ETA NORTASUN-MAPA EGIN:

- ☐ ZEURE NORTASUNA OSATZEN DUENARI BURUZ HAUSNARTZERA GONBIDATUKO ZAITUT ZURE NORTASUN-MAPA SORTUZ, GERUZAZ GERUZA ETA 4 KATEGORIATIK ABIATUTA.

15 MIN ↑



IZAN ETA GEHITU

2. ARIKETA: NORTASUN-MAPA BAT SORTU

HAU PROPOSAMEN BAT BESTERIK EZ DA; NORTASUNAK GEHITU EDO KENDU DITZAKEZU ZURE HISTORIA KONTATZEKO.

NI MAILEGATUTA EDO EZARRITA, GUSTUZ EDO DERRIGORREZ "HEREDATUTAKO" NORTASUNAREN ZATIAK.

NI PRIBILEGIO / ZAPALKUNTZA, GIZARTEAK GUTXI GORABEHERA ONARTZEN DUEN NORTASUNA.


ESLEI IEZAIOSU KOLORE BAT KATEGORIA BAKOITZARI MAPAN KOKATZEKO.

NORTASUN-GERUZAK

NI KOMUNITATEA, NIRE NORTASUN FAMILIARRA, NIRE LAGUNAK, NIRE GIZATALDEA, NIRE IKASGELA... NIRE HIRI-TRIBUA.

BARNEKO NI, NIK NEUK AURKITU DITUDAN GUSTU ETA EZAUGARRI PERTSONALENAK.

ZURE MAPA SORTZEKO, ZURE HISTORIAREN KONTAERARAKO BALIOKO DUTEN HAINBAT IRUDI ERABIL DITZAKEZU. MARRAZTU GUSTUKOENEN DUZUN SILUETA A3 KARTULINA BATEAN.



GURE NORTASUN-GERUZAK TOKI BATEAN EDO BESTEAN KOKATUKO DITUGU SINBOLISMOAREN ARABERA. ADIBIDEZ, AGIAN "BARNEKO NI" BIHOTZEAN ETA "NI MAILEGATUTA" ESKUAN JARRI NAHI DITUT.

②

IZAN ETA GEHITU


OBJEKTUEK GEURE
HISTORIA KONTATZEN
DUTE

2. ARIKETA: NORTASUN-MAPA BAT SORTU

20 MIN ↓

2.URRATSA HITZAK, KONTAERAK, OBJEKTUAK
ETA IRUDIAK BILDU MAPA EGITEKO:

- ALDEZ AURRETIK, ETXETIK ZENBAIT OBJEKTU,
GUTUN ETA OROIGARRI EKARRI DITUGU; ARGAZKIAK
INPRIMATU EDO MARRAZKIAK EGIN DITZAKEGU ERE
BAI. OBJEKTUAK ETA NORTASUNAK LOTUKO DITUGU.



MATERIALAK ALDEZ AURRETIK
PRESTATZEA GOMENDATZEN DA.

GAUZA GUZTIAK MAPAN KOKATUKO DITUGU
KATEGORIAK KONTUAN HARTUZ. OBJEK-
TUAK ITSATSI EDO EMAITZAREN ARGAZKI
BAT ATERA DEZAKEGU.

3.URRATSA GURE BIZITZAKO IBILBIDEAREN
HISTORIA ERAIKI MAPAN ZEHAR. GURE
KONTAERA PARTEKATUKO DUGU:

3

IZAN ETA GEHITU

ZURE HISTORIA
HIRUGARREN PERTSONAN
KONTA DEZAKEZU.

2. ARIKETA: NORTASUN-MAPA BAT SORTU



10 min

- ☐ **BESTEekin PARTEKATUKO DUGU AMAIERAKO
EMAITZA. KONTAERA AHALDUNDUA ERAIKI DEZAKE-
GU GURE GERUZA BAKOITZERAKO. GIDAREN GLOSA-
RJOA KONTSULTATZEA ETA GERUZEN GAINEZARPE-
NARI BURUZ IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK HAUS-
NARTZEA GOMENDATZEN DIZUGU. ZURE NORTA-
SUNAREN ZEIN ZATI ESKAINTZEN DIZKIEZU BES-
TEEI? ZER ESANAHI DAUKA ZURETZAT KOMUNITA-
TEAREN IDEIAK? ZEIN NORTASUNAREKIN SENTIT-
ZEN ZARA PRIBILEGIATUEN? ETA ZAPALDUEN?**

ERREFERENTEAK:

HONAKO ARTISTA HAVEN LANA KONTSULTA
DEZAKEGU TAILERRA EGIN BAINO LEHEN EDO
EGIN ONDOREN, EZTABAIDA ABERASTEKO:

+ JAKITEKO, KONTSULTATU GIDA:

MARE TRALLA HASSAN
SILVIA ALBERT HAJJAJ
W.E.B. DU BOIS NIKOLAJ CYON
BATOUL SHIMI
RUBÉN H. BERMÚDEZ
MONA CHALABI

IRUDIAK ETA
EDUKIA:



HONENTZAT:



4

FITXA DIDAKTIKORAKO WEBGRAFIA:

Silvia Albert:

<https://www.cccb.org/es/participantes/ficha/silvia-albert-sopale/228766>

Rubén H. Bermúdez:

<https://www.rubenhbermudez.com/>

Mare Tralla:

<https://www.tralla.net/>

Hassan Hajjaj:

@hassanhajjaj_larache

Batoul Shimi:

<https://www.meer.com/en/9776-batoul-shimi-world-under-pressure>

Nikolaj Cyon:

<https://www.cyon.se/#/alkebulan-1260-ah/>

Mona Chalabi:

<https://monachalabi.com/>

Du Bois:

<https://flourish.studio/blog/masters-web-dubois/>


Nortasun aniztunak ikasgeletan

Gero eta askotarikoago den eta nortasun aniztunak dituen gizarte batean bizi garen arren, arrazakeriak eta beste bereizkeria batzuek hainbat jatorritako subjektuek helmugako gizarteetara gaitasun aberasgariak ematea saihesten dute. Gune publikoan eta ikasgeletan gertatzen diren bereizkeria eta bazterketa horien biktima nagusiak migratzaileak edo talde minoritarioetako, hegemonikoak ez diren eta ikuspegi eurozentrikoan sartzen ez diren pertsonak dira.

Kategoria sozial jakin batzuk, generoa, jatorri etnikoa, erlijioa, aniztasun sexualak edo funtzionalak, besteak beste, izaten dira ikasgeletan bereizkeria jasateko arrazoiak.

Horregatik, Munduko Medikuek erakunde duela zenbait urte hasi zen lanean edozein motatako bazterketaren aurka borrokatzen. Kontuan izan behar dira alderdi eta nortasun horiek mota guztietako bereizkeriarik (generoa, arraza, maila soziala, eta abar) gabeko gizarte eta ikasgelak eraikitzeko.

Datozen orrialdeetan **PARTE IZAN ETA LOTU** ariketak aurkeztuko ditugu, nortasun aniztunak ikasgeletan lantzeko.



PARTE IZAN

3. ARIKETA: PHOTO CALL BAT SORTU, "HASHTAG (#), NI NEU".

ZER ESAN NAHI DU "HEMENGOA IZATEAK"? TOKI BATEN PARTE IZATEAK? GEURE BURVAREN PARTE IZATEAK? GURE BIZITZAN ZEHAR, ETIKETAK EDO HASHTAGAK METATUZ GOAZ; BATZUETAN GUK GEUK AUKERATZEN DITUGU ETA, BESTE BATZUETAN, JARTZEN DIZKIGUTE. EGIA ESAN, GUZTIOK ERA INTERSEKZIONALEAN ELKARRI ERAGITEN DIOTEN HAINBAT GAUZAZ GAUDE OSATUTA, GIZARTEA EZIN DA HARREMANETAN EGON HORJEKIN BEREIZITA.

→ MUNDU BERRI BAT ASMATU AHAL IZANGO BAZENU, NONGOA IZANGO ZINATEKE? NOLA IZANGO LITZATEKE MUNDU HORI? ZEIN ETIKETA IZAN NAHIKO ZENITUZKE LURRALDE HORRETAN? ETA GEURE MUNDUAN? ZEIN USTE DUZU ETIKETARIK ARRAKASTATSUARENA DELA?

NORTASUN ANIZTUNAK

#INTERSEKZIONALITATEA
#SEXISMOA
#ARRAZAKERIA
#DIASPORA
#ARRAZIALIZAZIOA



HELBURUAK:

- GIZARTEAK ESLEITZEN DIZKIGUN ETIKETAK ESTEREOTIPOEN ONDORIOZKOAK IZATEN DIRELA ULERTU.
- NORTASUNAK KONPLEXUAK DIRELA ETA ERA INTERSEKZIONALEAN FUNTZIONATZEN DUTELA ULERTU. GAUZA BERA GERTATZEN DA BEREIZKERIEKIN.
- GIZARTE ENPATIKOAGOAK IRUDIKATU.

EGINTZAK: **GUZTIRA: 45 MIN**

I. URRATSA

ARIKETA AURKEZTU: ERREFERENTE ARRAZIALIZATUAK EZAGUTUZ.



HAINBAT KOMUNITATEKO ERREFERENTEREN ARGAZKIAK AURKEZTUKO DITUGU, BENETAKO ETA GEZURREZKO KATEGORIAK DITUZTEN TXARTELEKIN BATERA.



15 MIN ↗



PARTE IZAN

3. ARIKETA: PHOTO CALL BAT SORTU, "HASHTAG (#), NI NEU".

ETIKETAK ETA ERREFERENTEAK LOTZEN SAIATUKO GARA (ERREFERENTEAK AUKE-RATU EGIN DITUZTE). GEROAGO AGERIAN JARRIKO DITUGU ZUZENAK.



2

PARTE IZAN

3. ARIKETA: PHOTO CALL BAT SORTU, "HASHTAG (#), NI NEU".

20 min

PAPER JARRAITU ZURIA
ETA KARTULINA
ZURIA BEHAR
IZANGO DITUGU.

2.URRATSA

IRUDIKATUTAKO MUNDU BAT ETA
LOTUTAKO KATEGORIAK AUKERATU:



AURREKO DINAMIKAN ESTEREOTIPOEI
ETA KATEGORIEI BURUZ HAUSNARTU
ONDOREN, GEURE BURUA AZALTZEN
DUTEN (#) BATZUK AUKERATUKO DITUGU.



ETIKETA HORIEKIN, MUNDU BERRI
BATEAN BIZI IZANGO DEN PERTSONAIA
BILAKATUKO GARA.

# ENPATIKOA	# AMESLARIA
# SORMENEZKOA	# ASKEA

ADIBI-
DEA

AGERTOKIA ETA
IRUDIKATUTAKO
MUNDUAN BI-
ZITZEKO
IZANGO GAREN
PERTSONAIAREN
EZAUGARRIAK
ASMATUKO
DITUGU.



PUNTA KARRATUA
DUEN ERROTULADOREA
ERABILTZEA
GOMENDATZEN
DUGU).



OSAGIAK TAMAINA
NATURALEKOAK IZAN BEHAR DIRA
PHOTO-CALLEAN GORPUTZAREN
GAINEAN ITSASTEKO.

EZAUGARRIAK
KARTULINA
ZURI
BATEAN,
ERROTULADORE
BELTZAREKIN,
SORTUKO
DITUGU.

3

PARTE IZAN

3. ARIKETA: PHOTO CALL BAT SORTU, "HASHTAG (#), NI NEU".

3. URRATSA PHOTO-CALLA PRESTATUKO DUGU.

☐ AUKERATU DITUGUN EZ-AUGARRIEKIN ETA #, JARRERA ETA ATZEALDEAREKIN ATERAKO DITUGU ARGAZKIAK. HORRETTIK, ZER DA GEURE

ERREFERENTEAK:

HONAKO ARTISTA HAVEN LANA KONTSULTA DEZAKEGU TAILERRA EGIN BAINO LEHEN EDO EGIN ONDOREN, EZTABAIDA ABERASTEKO:

- MEGANE MERCURY
- ADELITA HUSNI-BEY
- AYQA KHAM CARLA
- TONY GUM HAYES
- COCO FUSCO y GUILLERMO LILIANA
- GÓMEZ PEÑA ANGULO
- SARAH MAPLE CORTES
- PETER de VITO

ARGAZKI-ESTUDIO TXIKIA ANTOLATUKO DUGU PAPEL JARRAITUA ATZEALDEAN JARRIZ

10 min ↓



IRUDIAK ETA EDUKIA:



HONENTZAT:



4

FITXA DIDAKTIKORAKO WEBGRAFIA:

Xirou Xiao: www.xirouxiao.com

Safia El Aaddam: <https://hijadeinmigrantes.com/about/>

Thimbo Samb: <https://elpais.com/planeta-futuro/africa-no-es-un-pais/2022-02-04/thimbo-samb-mi-historia-y-tu-historia-no-son-tan-diferentes.html>

Verónica García

Megane Mercury: [@meganemercury](https://twitter.com/meganemercury)

Carla Hayes: <https://carlahayes.com/>

Adelita Husni-Bey: <https://www.vdrome.org/adelita-husni-bey-post-cards-from-the-desert-island/>

Ayqa Khan: <https://ayqakhan.com/>

Tony Gum: [@tony_gum](https://twitter.com/tony_gum)

Coco Fusco: <https://www.cocofusco.com/>

Guillermo Gómez Peña: <https://www.guillermogomezpena.com/>

Sarah Maple: <https://www.sarahmaple.com/>

Liliana Angulo Cortés: <https://blogs.otis.edu/talking-to-action/artistas/liliana-angulo/>

Peter de Vito: <https://www.peterdevito.com/>

4. ARIKETA: MASH-UP HORMA-IRUDI BAT SORTU

HISTORIAKO LIBURU BAT IREKI EGITEN DUGUNEAN, BADI RUDI DENA EUROPAN, EUROPEGATIK, EUROPARAKO GERTATZEN DELA, BAINA... ZER GERTATZEN MUNDUKO BESTE LEKU BATZUETAN? ARRETA HANDIAGOZ BEGIRATUZ GERO, KONTURATUKO GARA GAUR EGUN KULTURA ESATEN DIOGUN DELAKO HORI TOPAKETAREN, TRUKEAREN, FUSIOAREN, ASIMILAZIOAREN ETA, BATZUETAN ETA ZORITXARREZ, LAPURRETAREN EDO JABETZEAREN EMAITZA DELA. "TIPIKOTZAT" JOTZEN DUGUN GEHIENA GAUZA KULTURAL ASKOREN MIX EDO MASH-UP BAT DA.

NORTASUN ANIZTUNAK

#DEKOLONIALITASUNA
#EUROZENTRISMOA
#MUNDUKO HEGOALDEA
#TRANSKULTURALA
#INTERKULTURALA
#MULTIKULTURALA
#JABETZE KULTURALA



HELBURUAK:

- GURE GIZARTEAK EKARPEN KULTURAL GUZTIEN BATURA DIRELA ULERTU.
- ERREFERENTZIA TRANSKULTURALAK ETA DEKOLONIALAK IKASTEA.
- "HISTORIA BAKARRAREN" IDEIA ZALANTZAN JARRI ETA SORMENA IKUSPEGI KRITIKOTIK GARATU.

EGINTZAK: **GUZTIRA: 45 MIN**

I. URRATSA

ARIKETA AURKEZTU, ADIBIDEAK PROPOSATU ETA HITZAK ARGITU.




GLOSARIOAREN HITZAK AURKEZTUKO DITUGU TRUKEKO, ASIMILAZIOKO ETA JABETZE KULTURALEKO ZENBAIT ADIBIDETATIK ABIATUTA. JARRAIAN ADIBIDE BATZUK PROPOSATUKO DITUGU.

15 MIN ↑



4. ARIKETA: MASH-UP HORMA-IRUDI BAT SORTU

(GEROAGO IJITOEN KOMUNITATEAK BEREGANATU ETA GARATU ZUEN).



KUTXA FLAMENKOA

AFRIKARREK ASMATU ZUTEN. ESPAINIARREK ESKLABO EGINDA, PERURA ERAMATEN ZITUZTEN ITSASONTZIZIEN KUTXETAN PERKUSIOA JOTZEN ZUTEN.




SALMOREJO CORDOVÈS

GAUR EGUN URDAIAZPIKOA ETA ARRAUTZA GEHITZEN DIZKIOGUN PLATER HONEK, JATORRI MORISKO DU, ETA TOMATEEI ESKER EGIN DAITEKE.

(TRUKE GUZTIEK EZ DUTE "JATORRI ONBERA", ALEGIA)

(MAZAMORRA)



BATIK EHUNAK, WAX EHUNAK

(AMERIKAKO JATORRIKO PRODUKTUA)


(PATATA ETA AHUAKATE BEZALA).



MEXIKOKO JATORRIZKO HERRIEN BRODATUAK, JABETZA KULTURALAREN ADIBIDE GISA.

(MARKA KOMERTZIALEK HAINBAT DISEINU ERABILTZEN DITUZTE ETA KAPITAL KULTURAL ETA SORMENEZKO KAPITAL HORI ERABILTZEN DUTE EGILEA AITORTU GABE)

TXINATIK ABIATZEN ZEN ZETAREN IBILBIDEARI ESKER, TINDAGAIEN, ONGAILUEN, PAPERAREN, BOLBORAREN EDO PASTAREN TRUKE KOMERTZIALA NAGUSITU ZEN.



ZETAREN IBILBIDEA

LURRALDE BATEAN HAINBAT HERRITAKO ELKARBITZITZATIK SORTUTAKO NAZIOEZ HITZ EGIN DEZAKEGU, HALA NOLA ESPAINIA (ERROMATARRAK, ARABIARRAK, KARTAGOTARRAK...). TRUKE KULTURALEKO ZEIN ADIBIDE EZAGUTZEN DITUZU?



2


LOTU

4. ARIKETA: MASH-UP HORMA-IRUDI BAT SORTU

ARIKETA HONI HEL DIE-ZAIOKEGU IKASTETXEAREN ABERASTASUN KULTURALAREN ALDEKO KANPAINA IZANGO BALITZ BEZALA.

20 MIN

2.URRATSA "HEMEN" ETA "HAN" HORMA-IRUDIA SORTU: TRANSKULTURALITATEA EZAGUTZERA EMATEN.

 MASH-UP HORMA-IRUDI BAT EGINGO DUGU GURE ASKOTARIKO JATORRIAK, TRUKE KULTURALA EDO GEURE NORTASUN ANIZTUNAK ALDARRIKATZEKO, JATORRI DESBERDINETAKO BI IDEIA LOTUZ.



↑ LELO BAT ASMATUKO DUGU HORMA-IRUDIRAKO, ETA MARRAZKIA ETA COLLAGEA ERABILIKO DITUGU EGITEKO.



↑ MEXIKOKO ALEBRIJE BAT, TALAVERA (TOLEDO) ZERAMIKAKO ERARA APAINDUA.

↳ GEROAGO, EKARPENEN JATORRI KULTURALARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO ESKAINTZEN DIGUN QR KODE BAT GEHI DEZAKEGU. →

3.URRATSA

AZKENIK, AMAIERAKO EMAITZA ERAKUTSIKO DIOGU TALDE GUZTIARI.

3

LOTU

4. ARIKETA: MASH-UP HORMA-IRUDI BAT SORTU

ASOZIAZIOAREN ARABERAKO
HITZ EGITEKO TXANDA AGE-
RIAN JAR DEZAKEGU HARIL
GORRI BAT ERABILIZ. BATE-
TIK BESTERA PASATUKO
DUGU SARE BAT EHUNDUZ.



10 min

☐ **BESTEekin** PARTEKATUKO DUGU AMAIERAKO
EMAITZA, NAHIZ ETA DENBORA GUTXI IZAN,
ETA ALDEZ AURRETIK KOLORETAKO KARTU-
LINAK, ALDIZKARIAK ETA FOTOKOPIAK PRES-
TATUTA IZATEA GOMENDATZEN DA COLLAGEA
EGITEKO. LOTU DITUGUN OBJEKTUEN JATO-
RRIA BILATU BEHAR DUGU. PROPOSAMENAK
AURKEZTEKO UNEAN, ASOZIAZIOAREN ARA-
BERAKO TXANDA ERABIL DEZAKEGU (ADIBI-
DEZ, OSAGAI BAT, PATATA, EDO JATORRI
BAT, KOLONBIA, ERREPIKAT-
ZEN DENEAN).

ERREFERENTEAK:

HONAKO ARTISTA HAVEN LANA KONTSULTA
DEZAKEGU TAILERRA EGIN BAINO LEHEN EDO
EGIN ONDOREN, EZTABAIDA ABERASTEKO:

+ JAKITEKO, KONTSULTATU GIDA:

XIROU XIAO	YINKA SHONIBARE
SANDRA GAMARRA	EMILY JACIR
INGRID Nwangi	
LYGIA PAPE	AGNES.
TABITA REZAIRE	ESSONTI

IRUDIAK ETA
EDUKIA:



HONENTZAT:



FITXA DIDAKTIKORAKO WEBGRAFIA:

Xirou Xiao:

<http://liwai.org/cangrejo-pro>

Agnes Essonti:

<https://essonti.com/About>

Yinka Shonibare:

<https://yinkashonibare.com/>

Sandra Gamarra:

<https://www.youtube.com/watch?v=lpi0d5b7jq0>

Emily Jacir:

<https://www.sfmoma.org/artwork/2008.20.2.A-B/essay/desire-diaspora-emily-jacir/>

Ingrid Nwangi:


<https://mwangihutter.art/>

Lygia Pape:

https://www.youtube.com/watch?v=L9XsL_GvSa8

Tabita Rezaire:

<https://tabitarezaire.com/>



Amaiera: Askotariko eta bereizkeriarik gabeko ikasgelen alde

Gune publikoa elkarri eragiten dioten hainbat talderen eta nortasunaren arteko harremanetako eta tentsioetako tokia da. Ikasgelek gune jakin batean dauden nortasunen arteko botereko harremanen dinamikak aztertzen dituen ikuspegi interseksionaletik heldu behar diete aniztasunei.

Nelson Mandelak zioenez, **“hezkuntza da mundua aldatzeko armarik indartsuena”**. Beraz, ikasgelak aniztasuna errespetatzen duten eta horiek osatzen dituzten

subjektuen aberastasuna islatzen duten gune seguruak izan behar dira.

Ikasgelek gizartearen errealitate aniztunari erantzun behar diote Espainiako lurralde guztietan. Hezkuntza antolatuaren guneak, antolatu gabeko hezkuntzaren guneak edo gune informalak kulturarteko elkarri-zketarako tokiak, bizikidetza baketsuko, errespetuko, aniztasunaren aitorpenerako eta migrazio-prozesuaren ondorioz elkarren artean aberasteko tokiak izan behar dira.



GLO

SA

RIOA



Abya Yala

Lurralde amerikar bat aipatzeko ezagutzen den izenik zaharrena da. "Heldutasun betean dagoen lurra" edo "bizi-odoleko lurra" esan nahi du, eta Panamako eta Kolonbiako guna edo Cuna herriak jarri zion izena, gaur egungo Panaman dagoen Guna Yala herriak, hain zuzen ere.

Antirrazakeria

Edozein motatako arrazakeriaren (egiturazkoa, instituzionala, sistemikoa, egunerokoa eta abar) aurkako egintzak sustatzea. Antirrazista izateak pribilegio pertsonalen eta sozialen aitorpena eta berrikuspena dakar, baita desparekotasun sozialen kontra borrokatzeko ahaleginak eta egintzak sustatzea ere.

Jabetze kulturala

Gizatalde etniko edo komunitario zehatz baten osagai kultural tipikoak kultura horretatik kanpo dauden pertsonak erabiltzea, esanahia kenduz, erabilera banalizatuz eta jatorriaren aipamenik egin gabe.

Dekolonialtasuna

Abya Yalan sortzen ari den pentsaera-joera da, mendebaldeko botere kolonialaren logika, metafisika, ontologia eta matrizea deskribatu egiten dituen. Munduko kapitalismoari lotutako logika koloniala suntsitzeko ikuspegiak, metodoak eta estrategiak proposatzen ditu.

Aniztasuna

Inklusioko, hainbat jatorri sozial eta etnikoko pertsonak eta hainbat genero eta sexu-joe-rako pertsonak aitortzeko estrategia.

Etnozentrismoa

Kultura jakin bat besteen gainetik dagoela uste izatea.

Eurozentrismoa

Mundua mendebaldeko ikuspegitik ikustea, Europa erdigunetzat hartuta, historiaren protagonista gisa; bertatik mundua beste ikuspuntu batzuk kontuan hartu gabe aztertu egiten da.

Feminismoak

Feminismoa genero-parekotasunaren alde egiten duen mugimendu politikoa eta soziala, teoria politikoa eta ikuspegi filosofikoa da. Feminismo-joera asko daude.

Generoa

Pertsonen esleitutako ezaugarri sozialen, juridikoen, historikoen, politikoen eta kulturalen multzoa. Harremanetarako eta boterea erabiltzeko arau bereziak ezartzen dituen eraikuntza soziala da.

Kulturartekotasuna

Hainbat kulturaren agerpen eta elkarreagin zuzena eta partekatutako adierazpen kulturalak sortzeko aukera dagoela esan nahi du, elkarrizketaren eta elkarren arteko errespetuaren bidez.

Interseksionalitatea

Sexuaren, generoaren, etniaren, klasearen edo sexu-joeraren arteko nazioartekotasunari heltzen dio ikuspegi honek, eta eraikuntza sozialaren ondoriozko bereizkeria-mailak ikusteko aukera ematen duten kategoriak dira.

Matxismoa

Gizonezkoak emakumezkoen eta beste genero-nortasun batzuen ginetik egotea sustatzen eta gorensten duen zapalkuntza-sistema da.

Kultura-aniztasuna

Hainbat kulturaren baterako existentzia eta elkarren arteko trukea gune geografiko, fisiko edo sozial jakin batean.

Pribilegioa

Gizarte-mailagatik, jatorri etnikoagatik edo genero-nortasunagatik pertsona edo gizatalde jakin batzuentzat onuragarri den prerrogatiba bat da. Izan ere, pribilegio zuria mendebaldeko herrialdeetan pertsona zurientzat onuragarri den pribilegioa da, beste nortasun batzuetako pertsonen aurretik.

Arrazakeria

Gorputz batzuen beste batzuen ginetik bereiztean, jazartzean eta menderatzean oinarritzen den zapalkuntza-sistema (botere-egitura + aurreiritzia) historikoa eta ideologikoa da. Batez ere pertsona zuriei pribilegioak ematen dien arrazagatiko hierarkizazioaren ondorio da.

Arrazializazioa

Botere kolonial eta neokolonialaren bidez, eta arrazan oinarrituta, munduko hegoaldeko herriak hierarkizatu egiten dituen prozesua da.

Sexismoa

Generoan oinarritutako bereizkeria eta indarkeria-mota asko.

Munduko hegoaldea

Kolonialismoko eta neokolonialismoko elkarrekin lotutako historia eta desparekotasun sozial eta egiturazko desparekotasun askoko egitura sozial eta ekonomikoa dituzten herrialde/lurralde guztiak dira.

Transkulturalitatea

Gizarte batek beste gizarte bateko kultura eta ohiturak bereganatzeko prozesua; ordeztuz, osatuz eta eraldatuz, prozesua akulturazio bihur daiteke.

Bibliografía

-Matías, A. y Rodríguez, M. (2021). La prevención de violencias machistas desde el enfoque interseccional. AMPLIAR LA MIRADA. AIETI, financiado por AECID

-CONSEJO PARA LA ELIMINACIÓN DE LA DISCRIMINACIÓN RACIAL O ÉTNICA. (2020) Percepción de la discriminación por origen racial o étnico por parte de sus potenciales víctimas. Ministerio de Igualdad. Disponible en: <https://igualdadynodiscriminacion.igualdad.gob.es/destacados/estudiopercepcion.htm>

- Guzmán Ordaz, R., & Jiménez Rodrigo, M. (2015). La Interseccionalidad como Instrumento Analítico de Interpelación en la Violencia de Género (Intersectionality, a Methodological Tool for Analysing and Addressing Gender-based Violence). *Oñati Socio-Legal Series*, 5(2).

-ONU Mujeres. (2021). Enfoque en la prevención: Poner fin a la violencia contra las mujeres. Disponible en: <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/prevention#:~:text=La%20prevenci%C3%B3n%20es%20la%20%C3%BAnica,enfrentan%20las%20mujeres%20a%20diario>

- Orozco, A. P. (2014). Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida. *Traficantes de sueños*

Collins, P. H. (2002). *Black feminist thought: Knowledge, consciousness, and the politics of empowerment*. routledge.

-Política de Médicos del Mundo España sobre migraciones. Grupo estatal de migraciones, 2020.

-Posicionamiento de Médicos del Mundo ante la Inmigración.

-Política de Médicos del Mundo sobre derecho universal a la salud.

-(H)ABIAN 2030 (2021). la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS). Consulta en: https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/es_def/adjuntos/H-ABIAN_2030.pdf

